



# **GOBERNU BILERA**

**Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak**

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

**Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 29a**

**Vitoria-Gasteiz, 29 de abril de 2025**

## Kultura eta Hizkuntza Politika

---

**Eusko Jaurlaritzak 7 milioi euro bideratuko ditu berriro komunikabideetara adimen artifizial generatiboaren inpaktu negatiboa minimizatzeko**

- **Laguntza hauek EAEn egoitza duten eguneroko komunikabideei zuzenduta daude (prentsa idatzia, digitala, irratia eta telebista)**
- **Deialdia egiteko agindua maiatzaren 12an argitaratuko da EHAAn, eta eskabideak aurkezteko epea (hilabete) 2025eko maiatzaren 13tik ekainaren 12ra izango da.**

Gobernu Kontseiluak komunikabideei zuzendutako **zazpi milioi** euroko laguntzei argi berdea eman die. Bigarren urtea da Eusko Jaurlaritzak laguntza-lerro hau abian jartzen duena, hedatzen dituzten edukien sorreran, lanketan eta argitalpenean adimen artifizial generatiboak duen eragin negatiboa minimizatzeko eta desinformazioari aurre egiteko.

Iaz bezala, Eusko Jaurlaritzak aitortu egiten du **adimen artifizialak berrikuntzarako eta garapenerako egiten duen ekarpena**, baina, aldi berean, **informaziorako eskubideari ekar diezaiokkeen arriskuan** ere jarri du azpimarra. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak uste du **komunikabide profesionalak berebiziko garrantzia dutela eskubide hori betetzeko**, eta ezinbesteko eragileak direla desinformazioaren aurkako borrokan eta, beraz, balio demokratikoen garapenean. Testuinguru horretan daude euskal herritarrengandik hurbil dagoen komunikabideen ekosistema zaintzen duten laguntza-lerro hauek.

Laguntzak EAEn egoitza duten eguneroko komunikabide pribatu jeneralistentzat dira: prentsa idatzia, hedabide natibo digitalak, irratia eta telebistak. Horiek eskuratu ahal izateko, komunikabideek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- EAEn egoitza edo lurralde-ordezkaritza izatea.
- EAEko biztanle guztientzat eguneroko gaurkotasuneko gertakariei buruzko informazioa eta interes orokorreko edukiak eskaintzea, edo bere eremuko biztanleentzat interes orokorreko tokiko edo eskualdeko edukiak eskaintzea. (Gutxienez %15 ekoizpen propioko edukiak EAEn)
- Gutxienez 5 langile izatea plantillan 2024ko abenduaren 31n, eta gutxienez plantilla-maila horri eustea diruz lagundu daitekeen proiektuak edo jarduerak irauten duen hilabeteetan.

7 milioi euroko laguntzak komunikabideen ezaugarrien arabera antolatutako bi atal handitan banatuko dira.

1. **Lerroa (6M€):** Euskal Autonomia Erkidegoko komunikabide jeneralistentzako laguntzak. Aurreikuspenen arabera, 6 milioi euro bideratuko dira. (Hedabideek CIESen arabera, 25.000 erabiltzaile edo gehiago izan behar dituzte, edo 5.000 entzule euskara hutsean emititzen duten irratietan)
2. **Lerroa (1M€):** Tokiko edo eskualdeko edukia duten Eguneroko informazio ematen duten komunikabide laguntzak. Milioi bat euroko aurrekontua aurreikusi da. Lerro hori bi azpiataletan banatuta egongo da:

- CIESen gutxienez 4.000 erabiltzaile dituzten hedabideentzako laguntzak. (700.000 euro).
- CIESen gutxienez 4.000 erabiltzaile baino gutxiago dituzten komunikabideentzako laguntzak. (300.000 euro).

Laguntza horiek jasotzeko interesa duten komunikabideek eskaera aurkeztu beharko dute. Proiektua edo egingo duten jardueraren memoriak, gutxienez, honakoak jorratuko ditu:

- Edukiak eta informazioak sortzeko, egiteko eta argitaratzeko gai den diziplina anitzeko lantaldea. Horretarako, kideen profil profesionalak zehaztuko dira.
- Talde horren formakuntza/gaikuntza, adimen artifizialak komunikabideetan duen erabilerari eta eraginaren inguruan.
- Desinformazioari aurre egiteko neurriak edo mekanismoak, eta, bereziki, adimen artifizial generatiboko metodoekin sortutako desinformazioa kontrastatzeari eta egiaztatzeari dagokionez.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko desinformazioaren aurka, emakumeen aurkako indarkeriaren aurka eta LGTBI pertsonen eskubideen aurka borrokatzeko neurriak edo mekanismoak.
- Gizartearen alfabetatze mediatikoa sustatzen duten ekimenak eta/ edo tresnak, bai eta desinformaziorako zaugarrienak diren taldeenak ere.

**Ebaluazioa** egiterakoan, parametro hauek hartuko dira kontuan:

- Audentzia potentziala: 55 puntu.
- Kazetaritzako titulu ofiziala duten pertsonen kopurua: 5 puntu
- Sarbidearen unibertsaltasuna: 5 puntu.
- Proiektuaren kalitatea:
  - Adimen artifizial sortzailearen inpaktu negatiboa minimizatzea: 15 puntu
  - Desinformazioaren aurkako borroka: 5 puntu.
  - Desinformazioaren aurkako borroka emakumeen eta gizonen berdintasunaren, emakumeen aurkako indarkeriaren eta LGTBI pertsonen eskubideen arloan: 5 puntu.
  - Alfabetatze mediatikoa sustatzeko ekimenak eta/edo tresnak: 5 puntu
- Aurrekontua: 5 puntu

Deialdia egiteko agindua maiatzaren 12an argitaratuko da EHAAn, eta eskabideak aurkezteko epea (hilabetekoa) 2025eko maiatzaren 13tik ekainaren 12ra izango da.

## Ekonomia, Lana eta Enplegua

### Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak milioi bat euro baino gehiago onartu ditu bazterketa egoeraren aurkako proiektu esperimentaletarako laguntzetan

- **Dirulaguntza honen helburua da Inklusioko V. Euskal Planaren lehen plan operatiboan sartutako inklusioko eta laneratzeko hamar programari jarraipena ematea, eta parte hartzaileen enplegarritasuna eta bizi kalitatea erraztea**

Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak milioi bat eurotik gorako dirulaguntza onartu du 2023an abian jarritako proiektu esperimentalak egiteko. Horren bidez, jarraipena eman nahi zaie pobrezia egoeren edo bazterketa arriskuaren aurka borrokatzeko euskal estrategian sakontzea bilatzen duten hamar programari.

Proiektu horiek behar duten esku hartze mota dela eta, hasierako aurrekontu partida handitu egin da ezarritako helburuekin bete ahal izateko. Zehazki, Inklusioko V. Euskal Planaren lehen plan operatiboan sartuta dauden ibilbideak dira, parte hartzaileen enplegarritasuna eta bizi kalitatea errazteko; hain zuzen ere, bi erakunde publikok eta hirugarren sektoreko zortzi erakundek aurkeztutakoak.

Proiektu esperimentalek aukera ematen dute parte hartzaileentzako zerbitzuak artikulatzeko eta inklusio ibilbideak garatzeko, pobrezia eta bazterketa egoeretatik irtetea hobetzeko eta errazteko, haien inklusioa sustatzeko eta laneratzeko errazteko neurriak aktibatuz.

Erakundea eta proiektua	2025
<b>Vitoria-Gasteizko Udala.</b> "Kontzilia" espazio proiektua.	148.000,00 €
<b>Donostiako Udala.</b> UBA aterpetxe-eskola proiektua.	99.000,00 €
<b>Erakunde publikoak, guztira</b>	<b>247.000,00 €</b>
<b>Nahiarte Factory.</b> Desgaitasun psikikoa edo intelektuala duten artista plastikoen inklusioa eta laneratzeko.	96.000,00 €
<b>Sartu Taldea inklusio elkarte.</b> Emakumeen, talentuen eta aukeren proiektua.	155.400,00 €
<b>Etorkintza fundazioa.</b> Sistema eta prozesu soziosanitarioen arteko interkonexio proiektua, osasun mentaleko eta adikzioetako arazoak dituen arrisku egoeran eta/edo gizarte bazterketako egoeran dagoen pertsonari arreta integrala emateko.	57.638,00 €
<b>Bizitegi.</b> Aurkigune proiektua: aktibazio soziokomunitarioko zentroak.	140.000,00 €
<b>Emaus gizarte fundazioa.</b> Festival Nomada Jaialdia proiektua.	102.145,86 €
<b>Margotu elkarte: Hezkuntza eta Inklusio Soziala.</b> Emakumeak sarean indartuz proiektua.	73.000,00 €
<b>Abarka Garapen Lankidetzarako Elkarte.</b> Elkarrekin Gehiago Gara proiektua.	130.656,00 €
<b>Siderurgia Integraleko Langileen Fundazioa.</b> Itsaslur Capacita proiektua.	47.992,00 €
<b>Irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuak, guztira</b>	<b>802.831,86 €</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.049.831,86 €</b>

## Ekonomia, Lana eta Enplegua

### **Eusko Jaurlaritzak estatutuak onartu ditu Lanbide zuzenbide pribatuko erakunde publiko bihurtzeko**

- **Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak estatuto esparru moderno eta funtzional bat izango du horrela, Euskadin lan duinerako, enplegarritasuna hobetzeko eta gizarte eta lurralde kohesiorako eskubidea erabat garatzen laguntzeko gaitasuna indartzen duena**

Gobernu Kontseiluak Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak onartu ditu astearte honetan, zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren konfigurazio juridikoa burutuz.

Era horretan, abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 95. artikuluan xedatutakoa betetzen da. Artikulu horrek ezartzen du Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez onartuko dituela Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak, gobernu organoen funtzioak, osaera eta izendapena garatuko dituztenak, bai eta erakundearen zerbitzuen egitura organikoa eta funtzionala eta funtzionamendu araubidea ere, enpleguaren eta inklusioaren arloan ikerketa, diseinu eta berrikuntza aplikaturako laguntza tekniko espezializatua bermatuko duena.

Onartutako estatutuek Lanbideren araubide juridikoa, organikoa eta funtzionala garatzen dute, eta gobernu organoen osaera, funtzioak eta izendapena arautzen dituzte, bai eta barne egitura eta funtzionamendu araubidea ere. Eta legean ezarritako printzipio gidariak txertatzen dituzte; hala nola, hierarkia, sinpletasuna, argitasuna, subsidiarotasuna, moldagarritasuna eta antolaketa gardentasuna.

Gainera, Euskal Enplegu Sarea, kolaborazio eta lankidetzatresna dena, sortzeak Lanbideren egitura organiko eta funtzionalaren antolaketa egoki egokitzea eskatzen du, bai eta gobernu organoen eremu funtzionala zehaztea ere, enplegu zerbitzuen kudeaketa eraginkorra ahalbidetzeko eta enpleguaren eremuan prestazio rola hartzen duten sareko erakunde guztien kohesioa eta koordinazioa bermatzeko.

Ildo berean, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legetik eta 15/2023 Legetik eratorritako helburuekin eta aginduekin lerrotzeko dira estatutuak, eta bi alderdiri erantzuten dion egitura funtzionala ematen diote erakundeari: enplegu zerbitzu publiko gisa eta prestazio ekonomikoak kudeatzen dituen erakunde gisa.

Estatutu testuak kontuan hartzen ditu Lanbidek 2/2009 Legearen bidez sortu zenetik izan duen bilakaera instituzionala, 3/2011 Legearen bidez erakunde autonomo bihurtu zenetik izan duen bilakaera eta 329/2010 eta 82/2012 Dekretuen bidez onartutako estatutuak. Zentzu horretan, proposamenak erakundearen antolamendua eguneratzen

eta testuinguru sozioekonomikoaren eta arau arloaren eskakizun berrietara egokitzen du, erakundearen eraginkortasuna eta gaitasun operatiboa hobetzeko helburuarekin.

Dekretuaren eduki nagusia honako hau da:

- Gobernu organoen eginkizunak, osaera eta izendapen araubidea garatzea.
- Barne egituraren antolaketa eta funtzionamendu erregimena.
- Hierarkia, argitasun, subsidiarioritasun, moldagarritasun eta gardentasun printzipioak indartzea.
- Administrazio Kontseiluaren eta erakundearen ohiko zuzendaritzaren zeregin estrategikoa zehaztea.
- Zuzendaritza betearazleak, laguntza zerbitzuak eta lurralde eta toki bulegoak antolatzea.

Azken batean, onartutako estatutuek estatuto esparru moderno eta funtzionala ematen diote Lanbideri, Euskal Autonomia Erkidegoan lan duinerako, enplegarritasuna hobetzeko eta gizarte eta lurralde kohesiorako eskubidea erabat garatzen laguntzeko duen gaitasuna indartzeko.

## Hezkuntza

---

### **Hezkuntza Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 150 milioi eurotik gorakoa da**

Hezkuntza Sailaren 2025eko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, hiru sailburuordetzek kudeatutako dirulaguntzen deialdi guztiak jasotzen dituena, gaur onartu du Gobernu Kontseiluak. Planak 90.679.707 euroko inbertsioa dakar 2025eko ekitaldi honetarako, eta 60.182.143 euro gehiago 2026rako.

Hezkuntza Sailak 78 laguntza-lerro ditu gaur egun, eta horien zenbateko osoa 150.861.850.078 eurokoa da 2025. eta 2026. urteetarako. Horien artean, nabarmentzekoak dira eskolatzeko bekak eta laguntzak, hizkuntza-gaitasuna eta eleaniztasuna bultzatzea, bokazio zientifikoak eta artistikoak, kalitatezko indartze- eta irakaskuntza-programak garatzea... Era berean, Hezkuntza Sailaren diru-laguntza guztien artean garrantzi handia dute lehentasunezko jarduera-eremuetan sustatutako programa eta proiektuei zuzendutakoak, besteak beste, hezkidetzari, genero-indarkeriaren prebentzioari, bakeari eta bizikidetzari edo aniztasunarekiko arretari buruzkoak, hezkuntza-laguntzako premia espezifikokoak dituzten ikasleei erantzuten dieten programak alde batera utzi gabe.

Plana programatikoa da, eta Hezkuntza Sailaren politika planifikatzeko tresna da, gizarte-intereseko jarduerak sustatzea helburu duten jardun-arloetan, diru-laguntzak emanez. Horrela, tresna horrek eraginkortasun eta efizientzia mailak handitzea bermatzen du, bai eta Euskal Hezkuntza Sistemaren esparruan gardentasuna indartzea ere.

Laguntzen zerrenda luzean aipa daitezke, halaber, irakasleak prestatzera bideratutakoak, ikerketa sustatzera bideratutakoak, LHko ikastetxeetarako ekipamendua erostera bideratutakoak edo udal-titulartasuneko eskola-instalazioak egokitzea bideratutakoak, besteak beste.

## Hezkuntza

---

### **LHko Euskal Plana bultzatzea berrikuntza- eta ekintzailatza-proiektuetarako dirulaguntzen bidez**

Gaur onartu da Gobernu Kontseiluan Lanbide Heziketako VI. Euskal Planarekin bat datozen berrikuntza- eta ekintzailatza-proiektuak gauzatzeko dirulaguntzen deialdia.

Hezkuntza Sailak finantzatuko du Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxeetako proiektuen garapena, 770.000 euroko zenbatekoarekin, ordezko langileak kontratatzeko. Hau da, laguntza-deialdiaren helburua da itunpeko ikastetxeetako irakasleen liberazio osoa edo partziala finantzatzea, lehentasunez Lanbide Heziketako Euskal Plan berriarekin bat datozen berrikuntza-ekimenak garatu ahal izan ditzaten.

Hezkuntza Sailak bultzatzen duen irakasleen etengabeko prestakuntzaren testuinguruan, itunpeko sareko ikastetxeei dei egiten die, irakasleen bidez, haien prestakuntza indartuko duten proiektuetan parte har dezaten, gero eta espezializatuagoa den ikaskuntza-ingurunera egokitutako gaitasun eta metodo berriak garatzeko. Laguntza-lerro honen bidez sustatu nahi diren lan-esparru nagusiak honako hauek dira: Lanbide Heziketak enpresei, bereziki ETEei, ematen zaien laguntzan parte har dezan sustatzea; gorabidean dauden sektoreetan lan egitea, giza kapitalaren espezializazioaren eta berrikuntza aplikatuaren bidez; eta ekintzailatza sustatzea.

Beraz, dirulaguntzen deialdi honen helburua da, halaber, lanbide-heziketako ikastetxeetan ingurune estrategikoak eta espezializazio-arloak ezartzea, ikasleen enplegarritasuna hobetzeko. Zifra orokorretan, Euskadiko LHko ikasleen enplegarritasuna % 90 ingurukoa da. Ikasleen profilek euskal enpresa- eta industria-sarearen beharrei erantzuten diete. Helburua da euskal LHn prestatutako profesionalak lehiarako abantailak eskaintzen jarraitzea Euskadiko enpresei, batez ere ETEei.

### **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskadi 2030 Planarekin lerrokatuta**

2025-2026 ikasturterako, Euskadi 2030 ZTBPan (Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana) estrategikotzat identifikatutako jarduera-ildoen arabera diseinatu behar dira dirulaguntzari lotutako berrikuntza-proiektuak. Azken urteotan, Tknikak, Lanbide Heziketako Ikerketa eta Berrikuntza Aplikatuko Euskadiko Zentroak, ikastetxeek proposatutako eta aurreko deialdietan diruz lagundutako berrikuntza- eta ekintzailatza-ekimen diseinatuak aztertu eta ebaluatu ditu. Laguntzen deialdi berri honek berekin dakar TKNIKAk zuzenean esku hartzea, ikerketa eta berrikuntza aplikatuaz arduratzen den organo tekniko gisa, eta I+G+B proiektuen emaitzak Euskadin lanbide-heziketa ematen duten zentro guztietara transferitzea.

## Mugikortasun Jasangarria

---

### **Eusko Jaurlaritzak 2.752 metro karratuko trenbide-zorua desafektatu du Zarautzen**

Gobernu Kontseiluak, Susana García Chueca Mugikortasun Jasangarriaren sailburuak eskatuta, Zarautzen (Gipuzkoa) dauden bi lur-zerrendetako trenbide-jabari publikoa desafektatzea onartu du, ondoren lagatzeko eta udalerriaren ondarean sartzeko.

Eragindako azalerak, 1.377 eta 1.375 metro karratukoak, Bilbo-Donostia linearen inguruetan daude, herriko geltoki berriaren parean, eta erabilerarik gabe geratu dira, azpiegitura berria eraikitzeko obren ondoren trenbidearen trazadura birkonfiguratzearen ondorioz.

Zarauzko geltoki berriaren proiektua 2020an onartu zen, trenbide-azpiegitura hobetzeko eta hiri-ingurunean azpiko pasabide berri bat eraikitzeko. 2024an amaitutako obren ondoren, egiaztatu zen bi lurzati horiek jada ez zirela beharrezkoak trenbide-zerbitzu publikoa emateko, eta horrek, indarrean dagoen araudiaren arabera, Euskal Trenbide Sareak desafektazio formala egiteko eskaera eragin zuen. Gobernu Kontseiluak ekimen hori onartuta, lehen urratsa eman da desafektatutako lurrak Zarauzko udal-ondarean sartzeko.

## Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa

---

**Eusko Jaurlaritzak 4,6 milioi euro bideratuko ditu Euskadiko merkatatza-establezimenduak eta merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzuak modernizatzeko laguntzetara (Gobernu Kontseilua 2025-4-29)**

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak merkataritza-establezimenduak eta merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzuak modernizatzeko (MEC 2025) laguntza-programa onartu du gaur Gobernu Kontseiluan. Programa honen helburua berrikuntza, kudeaketa-tresnen hobekuntza, azpiegiturak eta ekipamendu komertziala bultzatzea da, sektorean kalitate eta lehiakortasun maila handiagoa lortzeko. Agindu honetarako aurrekontua 4.603.000 €-koa da.

Inbertsioan laguntzeko programa honek, Euskadiko merkataritza-enpresetara zuzenean bideratuak, % 15 gehiago handitu du bere aurrekontua 2024ko deialdiarekin alderatuta. Joan den urtean 1.508 eskaera aurkeztu ziren, 985 erantzun ziren eta esleitutako aurrekontu osoa gauzatu zen.

Laguntzak eskuragarri egongo dira beren konturako langile edo autonomoentzat, sozietate zibilentzat eta ondasun-erkidegoentzat, mikro-enpresentzat eta enpresa txikientzat, baldin eta jarduera nagusia Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako establezimendu fisikoetan egiten badute, kalean bertan, jendearentzat irekita eta egoera operatiboan.

Eskaerak aurkezteko epea agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2025eko irailaren 30ean amaituko da. Eskae-  
ren ebazpena ondoz ondo egingo da, epea amaitu edo kreditua agortu arte. Diruz lagundu ahal izango diren inbertsioak 2024ko urriaren 1etik 2025eko irailaren 30era bitartean (biak barne) egindakoak izango dira.

Laguntza-programa honek indartu egiten du Eusko Jaurlaritzak eskualdeko merkataritza- eta zerbitzu-sektorearen garapenarekin eta modernizazioarekin duen konpromisoa, lehiakortasuna eta kalitatea sustatuz etengabe aldatzen ari den enpresa-ingurunean.

## Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza

### **Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak nekazaritzako sasoikako langileei ostatu emateko higiezinak sortu, egokitu edo ekipatzeko laguntzen deialdia egin du**

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio nekazaritza-sektorean lan egiten duten sasoikako langileei ostatu emateko higiezinak sortu, egokitu edo ekipatzeko 2025erako laguntzak deitzeko Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren aginduari. Helburu horretara 40.000 euro bideratuko dira.

Laguntza horiek Europako Batzordeak 2023an minimis laguntzei buruz ezarritako araubideari atxikita daude. Inbertsioak eta gastuak urtekoak izango dira. Pertsona fisiko edo juridikoei, publiko edo pribatuei, zuzenduta daude, betiere nekazaritza-ustiategi baten titularrak edo titularkideak badira.

Nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen elkarte pribatuek eta ondasun-erkidegoek nekazaritza-ustiategi baten titularrak edo titularkideak izan beharko dute. Horietan parte hartzen duten pertsona guztiak eta bakoitza hartuko dira onuraduntzat, eta guztiek bete beharko dituzte dekretuan ezarritako baldintzak eta betekizunak.

Eskabidea aurkezteko, egunean egon beharko dute zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzako betebeharretan, bai eta dirulaguntzak itzultzeagatik betebeharren ordainketan ere. Horrez gain, jakinarazi beharko dute eskatu eta lortu al duten dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabide ekonomikorik, diruz lagundu daitekeen gastu bererako, edozein administrazio publiko edo ente publiko edo pribatutatik.

Laguntzen eskatzaileek honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute: Hirugarrenaren alta, egoitza elektronikoan izapidetu ahal izango da <https://www.euskadi.eus/altaterceros/> estekan; pertsona juridikoa izanez gero, erakundearen eratze-eskriuraren eta estatutuen egiazko kopia, dagokion erregistroan inskribatu izanaren zigilua duena, eta zuzendaritza-organoen osaera egiaztatzen duen ziurtagiria. Erakunde publikoa izanez gero, nekazaritza-ustiategiaren titularra edo titularkidea izatearen egiaztatzea, jabetza osoan edo partekatuan, errentamenduan, gozamenean edo prekarioan duen ondasun higiezinaren ostatu gisa erabiltzeko egokitzea ahalbidetzen dion tituluaren kopia.

Nortasun juridikorik ez duten pertsona fisikoen edo juridikoen elkarte pribatuen eta ondasun-erkidegoen kasuan, berariaz jaso beharko dira, eskabideari erantsitako dokumentuan, taldeko kide bakoitzak bere gain hartutako egikaritze-konpromisoak, bai eta horietako bakoitzak gauzatu beharreko aurrekontuaren zenbatekoa ere, eta horiek ere onuraduntzat hartuko dira.

Nolanahi ere, Nekazaritzako Zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta informazio osagarria eskatu ahal izango dio eskatzaileari, aurkeztutako eskaera behar bezala ulertu, ebaluatu eta izapidetzeko. Dokumentazioa aurkezteko epea agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den hurrengo egunean hasiko da, eta helburu horretarako izendatutako aurrekontua agortzen denean edo 2025eko abuztuaren 31n amaituko da.

## Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza

---

**Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Sailaren Nekazaritza eta Landa eta Itsas Garapena programarako 7.391.773,93 euroko kreditua gaitzen duen dekretuari**

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Sailaren Nekazaritza eta Landa eta Itsas Garapena programarako 7.391.773,93 euroko kreditua gaitzen duen dekretuari, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2025eko ekitaldiko aurrekontuko 9311 programan (Europar Batasunarekiko Finantza Harremanak) lortutako diru-sarreraren ondorioz.

Konpromiso irmoak daudenez Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzaileari 7.391.773,93 euroko diru-sarrerak emateko Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsak (NBEF) kofinantzatutako laguntzei dagokienez eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) konfinantzatutako laguntzei dagokienez, kreditu hori gaitu da Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen erregimenaren arloan indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Ondorioz, Ogasun eta Finantzetako sailburuak eta Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak kreditua gaitzea onartu du Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko ekitaldirako Administrazio Orokorren aurrekontuan. Funtsak Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzaileak egin beharreko jarduketak finantzatzeko erabiliko dira.

## Cultura y Política Lingüística

---

**El Gobierno Vasco volverá a destinar 7 millones de euros a los medios de comunicación para minimizar el impacto negativo de la inteligencia artificial generativa**

- **Estas ayudas están destinadas a medios de comunicación diarios (prensa escrita, digital, radio y televisión) con sede en la CAPV**
- **La Orden de convocatoria se publicará en el BOPV el 12 de mayo y el plazo de presentación de solicitudes (un mes) será del 13 de mayo al 12 de junio de 2025**

El Consejo de Gobierno ha dado luz verde a las ayudas a medios de comunicación por valor de **siete millones de euros**. Se trata del segundo año que el Ejecutivo vasco pone en marcha esta línea de ayudas cuyo **fin es minimizar el impacto negativo de la inteligencia artificial** generativa en la creación, elaboración y publicación de contenidos que difunden, así como, **hacer frente a la desinformación**.

Al igual que el año pasado, el Gobierno Vasco reconoce **la aportación que la Inteligencia Artificial conlleva para la innovación y el desarrollo**, pero al mismo tiempo, señala el **riesgo** que puede suponer para el **derecho a la información**. Por ello, el Gobierno Vasco considera que **los medios de comunicación profesionales juegan un papel crucial en el cumplimiento de ese derecho** y son agentes imprescindibles en la lucha contra la desinformación y, por tanto, en el desarrollo de los valores democráticos. Es en este contexto en el que se encuentran **estas líneas de ayudas que velan por un ecosistema de medios de comunicación cercano a la ciudadanía vasca**.

Las ayudas están **dirigidas a** medios de comunicación diarios generalistas con sede en la CAE: prensa-escrita, medios nativos digitales, emisoras de radio y televisión. Para poder acceder a ellas los medios de comunicación deberán cumplir los siguientes **requisitos**:

- tener sede o delegación territorial en la CAPV
- ofrecer información y contenidos de interés general sobre acontecimientos de actualidad cotidiana para toda la población de la CAPV, o contenidos locales o regionales de interés general para la población de su ámbito. (Mínimo 15% contenidos de producción propia en la CAPV)
- contar con un mínimo de 5 trabajadores en plantilla a 31 de diciembre de 2024 y mantener dicho nivel de plantilla al menos durante los meses de duración del proyecto o actividad subvencionable.

Los 7 millones de euros de ayudas se distribuirán en **dos grandes apartados** organizados en función de las características de los medios de comunicación.

1. **Línea 1 (6 M€):** Ayudas a medios de comunicación privados generalistas de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Se prevé una dotación de 6 millones de euros. (Deben contar con una audiencia igual o superior a 25.000 personas usuarias o 5.000 oyentes en aquellas emisoras que emitan íntegramente en euskera, según el Estudio de Audiencia de Medios – CIES).

2. **Línea 2 (1 M€):** Ayudas a medios de comunicación diarios generalistas con contenido local o comarcal. Esta línea estará dividida en dos subapartados:
- a) Ayudas para medios que cuenten con una audiencia mínima de 4.000 personas usuarias en CIES. (Dotación: 700.000 euros).
  - b) Ayudas a medios de comunicación con una audiencia inferior a 4.000 personas usuarias en CIES. (Dotación: 300.000 euros).

Los medios de comunicación interesados en estas ayudas **deberán presentar la solicitud en la que se detalle el proyecto o la actividad** que vayan a llevar a cabo. La memoria del proyecto o actividad deberá incluir, al menos:

- Equipo humano multidisciplinar capacitado para la creación, elaboración y publicación propia de contenidos e informaciones. Para ello, se detallarán los perfiles profesionales de las personas integrantes.
- Formación y/o capacitación de dicho equipo relativa al uso y el impacto de la inteligencia artificial en los medios de comunicación.
- Medidas o mecanismos para hacer frente a la desinformación y, en particular, en lo relativo a contrastar y verificar la desinformación creada con métodos de inteligencia artificial generativa.
- Medidas o mecanismos para luchar contra la desinformación en materia de igualdad de mujeres y hombres, violencia contra las mujeres y contra los derechos de las personas LGTBI.
- Iniciativas y/o herramientas que promuevan la alfabetización mediática de la sociedad en general, y de los grupos más vulnerables a la desinformación en particular.

A la hora de realizar la evaluación se tendrán en cuenta los siguientes parámetros

- Audiencia potencial: 55 puntos.
- Número de personas con titulación oficial de periodismo: 5 puntos
- Universalidad del acceso: 5 puntos.
- Calidad del proyecto:
  - Minimizar el impacto negativo de la inteligencia artificial generativa: 15 puntos
  - Lucha contra la desinformación: 5 puntos.
  - Lucha contra la desinformación en materia de igualdad de mujeres y hombres, violencia contra las mujeres y derechos de las personas LGTBI: 5 puntos.
  - Iniciativas y/o herramientas para promover la alfabetización mediática: 5 puntos
- Presupuesto: 5 puntos.

La Orden de convocatoria se publicará en el BOPV el 12 de mayo y el plazo de presentación de solicitudes (un mes) será del 13 de mayo al 12 de junio de 2025

## Economía, Trabajo y Empleo

### Economía, Trabajo y Empleo aprueba más de un millón de euros en ayudas para proyectos experimentales en la lucha contra la exclusión

- **Esta subvención tiene como objeto dar continuidad a diez programas de inclusión sociolaboral integrados en el primer plan operativo del V Plan Vasco de Inclusión y facilitar la empleabilidad y la calidad de vida de las personas participantes**

El Departamento de Economía, Trabajo y Empleo ha aprobado una subvención de más de un millón de euros para la realización de proyectos experimentales puestos en marcha en 2023. Con ello se pretende dar continuidad a diez programas que buscan ahondar en la estrategia vasca de lucha contra situaciones de pobreza o riesgo de exclusión.

Dado el tipo de intervención que estos proyectos requieren, se ha incrementado adicionalmente la partida presupuestaria inicial para poder culminar con los objetivos establecidos. En concreto, se trata de itinerarios presentados por dos instituciones públicas y ocho entidades del tercer sector que están integrados en el primer plan operativo del V Plan Vasco de Inclusión y así facilitar la empleabilidad y la calidad de vida de las personas participantes.

Los proyectos experimentales permiten articular servicios y desarrollar itinerarios de inclusión para las personas participantes, activando medidas orientadas a mejorar y propiciar la salida de las situaciones de pobreza y exclusión, fomentar su inclusión social y facilitar su inserción laboral.

Entidad y Proyecto	2025
<b>Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.</b> Proyecto Espacio "Concilia".	148.000,00 €
<b>Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián.</b> Proyecto Albergue – Escuela de UBA.	99.000,00 €
<b>Total Entidad Pública</b>	<b>247.000,00 €</b>
<b>Nahiarte Factory.</b> Proyecto Inclusión sociolaboral de artistas plásticas y plásticos con discapacidad psíquica o intelectual.	96.000,00 €
<b>Asociación para la inserción social Sartu Taldea.</b> Proyecto mujeres, talentos y oportunidades.	155.400,00 €
<b>Fundación Etorikintza.</b> Proyecto interconexión de sistemas y procesos sociosanitarios para la atención integral centrada en la persona en situación de riesgo y/o exclusión social con problemas de salud mental y adicciones.	57.638,00 €
<b>Bizitegi.</b> Proyecto Aurkigune: centros de activación sociocomunitaria.	140.000,00 €
<b>Emús Fundación Social.</b> Proyecto Festival Nómada Jaialdia.	102.145,86 €
<b>Asociación Margotu: Educación e Inclusión Social.</b> Proyecto Emakumeak sarean indartuz.	73.000,00 €
<b>Asociación de Cooperación al Desarrollo Abarka.</b> Proyecto Elkarrekin Gehiago Gara.	130.656,00 €
<b>Fundación de Trabajadores de la Siderurgia Integral.</b> Proyecto Itsaslur Capacita.	47.992,00 €
<b>Total Entidad Privada sin ánimo de lucro</b>	<b>802.831,86 €</b>
<b>TOTAL</b>	<b>1.049.831,86 €</b>

## Economía, Trabajo y Empleo

---

### **El Gobierno aprueba los estatutos para transformar Lanbide en un ente público de derecho privado**

- **El Servicio Público Vasco de Empleo se dota así de un marco estatutario moderno y funcional que refuerza su capacidad para contribuir al pleno desarrollo del derecho al trabajo digno, a la mejora de la empleabilidad y a la cohesión social y territorial en Euskadi**

El Consejo de Gobierno ha aprobado este martes los estatutos de Lanbide-Servicio Público Vasco de Empleo con lo que culmina la configuración jurídica del ente público de derecho privado.

Con ello, se da cumplimiento a lo dispuesto en el artículo 95 de la Ley 15/2023, de 21 de diciembre, que establece que el Gobierno Vasco aprobará mediante decreto los estatutos de Lanbide-Servicio Público Vasco de Empleo, que desarrollarán las funciones, composición y nombramiento de los órganos de gobierno, así como la estructura orgánica y funcional de los servicios del ente y su régimen de funcionamiento, que garantizará la asistencia técnica especializada para la investigación, diseño e innovación aplicada en materia de empleo e inclusión.

Los estatutos aprobados desarrollan el régimen jurídico, orgánico y funcional de Lanbide, regulando la composición, funciones y designación de sus órganos de gobierno, así como su estructura interna y su régimen de funcionamiento. E incorporan los principios rectores establecidos en la Ley, como la jerarquía, simplicidad, claridad, subsidiariedad, adaptabilidad y transparencia organizativa.

Además, la creación de la Red Vasca de Empleo, instrumento de colaboración y cooperación, exige una adecuada adaptación de la organización de la estructura orgánica y funcional de Lanbide, así como la determinación del ámbito funcional de sus órganos de gobierno, de modo que permita una gestión eficiente de los servicios de empleo y que garantice la cohesión y coordinación de todas las entidades integrantes de aquella Red que asumen un rol prestacional en el ámbito del empleo.

Asimismo, los estatutos se alinean con las finalidades y mandatos derivados de la Ley 14/2022, de 22 de diciembre, del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión, y de la citada Ley 15/2023, dotando al ente de una estructura funcional que responde a su doble vertiente: como servicio público de empleo y como entidad gestora de prestaciones económicas.

El texto estatutario tiene en cuenta la evolución institucional de Lanbide desde su creación por la Ley 2/2009, su transformación en organismo autónomo por la Ley 3/2011, y los estatutos aprobados mediante los Decretos 329/2010 y 82/2012. En este sentido, la propuesta actualiza y adapta la organización del ente a las nuevas exigencias

del contexto socioeconómico y normativo, con el objetivo de mejorar su eficacia y capacidad operativa.

El contenido principal del decreto es el siguiente:

- Desarrollo de las funciones, composición y régimen de nombramiento de sus órganos de gobierno.
- Organización de su estructura interna y régimen de funcionamiento.
- Refuerzo de principios como jerarquía, claridad, subsidiariedad, adaptabilidad y transparencia.
- Definición del papel estratégico del Consejo de Administración y de la dirección ordinaria del ente.
- Articulación de las direcciones ejecutivas, servicios de asistencia y oficinas territoriales y locales.

En definitiva, los estatutos aprobados dotan a Lanbide de un marco estatutario moderno y funcional que refuerza su capacidad para contribuir al pleno desarrollo del derecho al trabajo digno, a la mejora de la empleabilidad y a la cohesión social y territorial en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

## Educación

---

### **El Plan Estratégico de Subvenciones del Departamento de Educación asciende a más de 150 millones de euros**

El Plan Estratégico de Subvenciones 2025 del Departamento de Educación que recoge la totalidad de las convocatorias de subvenciones gestionadas por sus tres viceconsejerías ha sido aprobado hoy en Consejo de Gobierno. El plan supone una inversión de 90.679.707 euros para este ejercicio 2025 y 60.182.143 euros adicionales para el 2026.

El Departamento de Educación tiene actualmente un total de 78 líneas de ayudas, cuyo importe global para los años 2025 y 2026 asciende a 150.861.850.078 euros. Entre ellas, destacan las becas y ayudas para la escolarización, el impulso a la competencia lingüística y plurilingüe, las vocaciones científicas y artísticas, desarrollo de programas de refuerzo y enseñanza de calidad... Ocupan, asimismo, un lugar relevante entre todas las subvenciones del Departamento de Educación las dirigidas a programas y proyectos promovidos en los ámbitos de actuación prioritarios como la coeducación, la prevención de violencia de género, la paz y convivencia o la atención a la diversidad, sin dejar de lado los programas que dan respuesta al alumnado con Necesidades Específicas de Apoyo Educativo, entre otros.

El Plan, de carácter programático, se configura como un instrumento de planificación de la política del Departamento de Educación en las áreas de actuación que tienen por objeto el fomento de actividades de interés social, mediante la concesión de subvenciones. De esta forma, esta herramienta garantiza un incremento en los niveles de eficacia y eficiencia, así como el fortalecimiento de la transparencia en el ámbito del Sistema Educativo Vasco.

En la larga lista de ayudas también se pueden citar las dirigidas a la formación del profesorado, las que se ocupan del fomento de la investigación, las que tienen por objeto la adquisición de equipamiento para centros de FP o las dirigidas al acondicionamiento de instalaciones escolares de titularidad municipal, entre otras.

## Educación

---

### **Impulso al Plan Vasco de FP a través de subvenciones para proyectos de innovación y emprendimiento**

Hoy se ha aprobado en Consejo de Gobierno la convocatoria de subvenciones para la realización de proyectos de innovación y emprendimiento alineados con el VI Plan Vasco de Formación Profesional.

El Departamento de Educación financiará el desarrollo de proyectos en centros concertados que imparten ciclos formativos de Formación Profesional con una cantidad de 770.000 euros destinados a la contratación del personal sustituto. Es decir, la convocatoria de ayudas tiene por objeto la financiación de la liberación total o parcial de personal docente de los centros concertados para que puedan desarrollar iniciativas de innovación alineados, prioritariamente, con el nuevo Plan Vasco de Formación Profesional.

En el contexto de la formación continua del profesorado que impulsa el Departamento de Educación, convoca a los centros de la red concertada a que a través de su profesorado, participen en proyectos que refuercen la formación del profesorado orientada a desarrollar nuevas capacidades y métodos adaptados a un entorno de aprendizaje cada vez más especializado. Fomentar la participación de la FP en el apoyo a empresas, en especial pymes, el trabajo en sectores emergentes a través de la especialización del capital humano y la innovación aplicada o la promoción del emprendimiento son los principales ámbitos de trabajo que se pretende incentivar a través de esta línea de ayudas.

Por lo tanto, esta convocatoria de subvenciones responde también al objetivo de establecer entornos estratégicos y áreas de especialización en los centros de formación profesional orientados a mejorar la empleabilidad del alumnado. En cifras generales, la empleabilidad del alumnado de FP de Euskadi roza el 90%. Los perfiles del alumnado responden a las necesidades del tejido empresarial e industrial vasco. El objetivo es que los profesionales formados en la FP vasca sigan ofreciendo ventajas competitivas a las empresas de Euskadi, en especial a las pymes.

#### **Alineados con el Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación Euskadi 2030**

Para el curso 2025-2026, los proyectos de innovación sujetos a la subvención deben diseñarse en función de las líneas de actuación identificadas como estratégicas en el PCTI (Plan de Ciencia Tecnología e Innovación) Euskadi 2030. En los últimos años, Tknika, el Centro de Investigación e Innovación Aplicada de la Formación Profesional de Euskadi, ha analizado y evaluado distintas iniciativas diseñadas de innovación y emprendimiento propuestos por los centros y subvencionados en las anteriores convocatorias. Esta nueva convocatoria de ayudas lleva consigo la intervención directa de TKNIKA, como órgano técnico encargado de la investigación e innovación aplicada y la transferencia de los resultados de los proyectos de I+D+I, a todos los centros que imparten formación profesional en Euskadi.

## Movilidad Sostenible

---

### **El Gobierno Vasco desafecta 2.752 metros cuadrados de suelo ferroviario en Zarautz**

El Consejo de Gobierno ha aprobado, a petición de la consejera de Movilidad Sostenible, Susana García Chueca, la desafectación del dominio público ferroviario de dos franjas de terreno ubicadas en la localidad de Zarautz (Gipuzkoa) para su posterior cesión e incorporación al patrimonio del municipio.

Las superficies afectadas, de 1.377 y 1.375 metros cuadrados, se sitúan en las inmediaciones de la línea Bilbao-Donostia a la altura de la nueva estación de la localidad y han quedado en desuso como consecuencia de la reconfiguración del trazado ferroviario tras las obras de construcción de la nueva infraestructura.

El proyecto de nueva estación de Zarautz fue aprobado en 2020 con el objetivo de mejorar la infraestructura ferroviaria y construir un nuevo paso inferior en el entorno urbano. Tras la ejecución de las obras, que culminaron el pasado año 2024, se constató que esas dos parcelas de terreno ya no eran necesarias para la prestación del servicio público ferroviario lo que, conforme a la normativa vigente, motivó la solicitud de desafectación formal por parte de Euskal Trenbide Sarea. Con la aprobación de esta iniciativa por parte del Consejo de Gobierno se da el primer paso para la incorporación de los terrenos desafectados al patrimonio municipal de Zarautz.

## Turismo, Comercio y Consumo

---

**El Gobierno Vasco destina 4,6 millones de euros a Ayudas para la Modernización de Establecimientos Comerciales y Servicios relacionados con la actividad comercial de Euskadi**

El Departamento de Turismo, Comercio y Consumo ha aprobado hoy en Consejo de Gobierno el programa de ayudas destinado a impulsar la modernización de los establecimientos comerciales y de servicios relacionados con la actividad comercial (MEC 2025). Este programa tiene como objetivo impulsar la innovación, la mejora de los instrumentos de gestión, las infraestructuras y el equipamiento comercial, con el fin de alcanzar un mayor nivel de calidad y competitividad en el sector. El presupuesto asignado para esta orden es de 4.603.000 €.

Este programa de apoyo a la inversión dirigido directamente a las empresas comerciales de Euskadi ha incrementado su presupuesto un 15 % más respecto a la convocatoria del año 2024, donde se presentaron 1.508 solicitudes, atendándose 985 y ejecutando la totalidad del presupuesto asignado.

Las ayudas estarán disponibles para las personas trabajadoras por cuenta propia o autónomas, sociedades civiles y comunidades de bienes, micro y pequeñas empresas que desarrollen su actividad principal en establecimientos físicos, situados a pie de calle, abiertos al público y en estado operativo, ubicados en la Comunidad Autónoma del País Vasco

El plazo de presentación de solicitudes comenzará el día siguiente a la fecha de publicación de la presente orden en el Boletín Oficial del País Vasco prevista para el 7 de mayo y finalizará el 30 de septiembre de 2025. La resolución de concesión de las solicitudes se realizará de manera sucesiva hasta finalización del plazo o agotamiento del crédito. Las inversiones subvencionables serán aquellas realizadas entre el 1 de octubre de 2024 el 30 de septiembre de 2025, ambos incluidos.

Este programa de ayudas refuerza el compromiso del Gobierno Vasco con el desarrollo y la modernización del sector comercial y de servicios en la región, promoviendo la competitividad y la calidad en un entorno empresarial en constante evolución.

## Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca

### **El Departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca convoca ayudas a la creación, adaptación o equipamiento de inmuebles de alojamiento para el personal temporero agrario**

El Consejo de Gobierno ha dado su visto bueno a la orden de la Consejera de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca, por la que se convocan ayudas a la creación, adaptación o equipamiento de inmuebles destinados a ser alojamiento para el personal temporero que preste servicios en el sector agrario para el año 2025. A ese objetivo se dedicarán 40.000 euros.

Estas ayudas se acogen al régimen establecido por la Comisión Europea en 2023, relativo a las ayudas de minimis. Las inversiones y gastos serán de carácter anual. Están dirigidas a personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, siempre y cuando sean titulares o cotitulares de una explotación agraria.

Las agrupaciones de personas físicas o jurídicas privadas sin personalidad jurídica y las comunidades de bienes, habrán de ser titulares o cotitulares de una explotación agraria. Todas y cada una de las personas que participan en ellas tendrán la consideración de personas beneficiarias, debiendo cumplir todas ellas los requisitos y condiciones establecidos en el decreto.

Para la presentación de solicitud habrán de estar al corriente de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social y en el pago de obligaciones por reintegro de subvenciones además de comunicar si ha solicitado o no, y si se han obtenido, subvenciones, ayudas, ingresos u otros recursos económicos para el mismo gasto subvencionable, procedentes de cualquier administración pública o entes tanto públicos como privados.

Las personas solicitantes de las ayudas deberán aportar la siguiente documentación: Alta de tercero. Se podrá tramitar en la sede electrónica en este enlace <https://www.euskadi.eus/altaterceros/> ; en el supuesto de ser persona jurídica, copia auténtica de la escritura de constitución y los estatutos de la entidad donde figure el sello de haber sido inscrita en el correspondiente registro y, certificado que acredite la composición de sus órganos de dirección. Para entidades públicas, acreditación de ser titular o cotitular de explotación agraria, copia del título que permita la utilización del bien inmueble para su adaptación como alojamiento, bien se tenga en propiedad plena o compartida, en arrendamiento, usufructo o precario.

Cuando se trate de agrupaciones de personas físicas o jurídicas privadas sin personalidad jurídica y las comunidades de bienes, deberá constar expresamente, en documento anexo a la solicitud, los compromisos de ejecución asumidos por cada miembro de la agrupación, así como el importe de presupuesto a ejecutar por cada uno de ellos, que tendrán igualmente la consideración de persona beneficiaria.

En cualquier caso, la dirección de Agricultura podrá requerir a la persona solicitante cuanta documentación e información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión, evaluación y tramitación de la solicitud presentada. El plazo de presentación comenzará al día siguiente de la publicación de esta orden en el Boletín Oficial del País Vasco y finalizará en el momento de producirse el agotamiento del presupuesto destinado a este efecto, o el 31 de agosto de 2025.

## Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca

---

**El Consejo de Gobierno da su visto bueno al decreto por el que se habilita un crédito para el programa departamental de Agricultura y Desarrollo Rural y Litoral por importe de 7.391.773,93 euros**

El Consejo de Gobierno ha dado su visto bueno al decreto por el que se habilita un crédito para el programa departamental de Agricultura y Desarrollo Rural y Litoral, por ingresos en el programa 9311 de Relaciones Financieras con la Unión Europea, en el presupuesto de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2025, por importe de 7.391.773,93 euros.

Dada la existencia de compromisos firmes de aportación de ingresos para el Organismo Pagador de la Comunidad Autónoma de Euskadi por importe de 7.391.773,93 euros en relación con las ayudas cofinanciadas por el fondo comunitario FEAGA y las ayudas cofinanciadas por el fondo comunitario FEADER se ha habilitado dicho crédito, de conformidad con lo establecido en las disposiciones legales en materia de régimen presupuestario de Euskadi.

A propuesta del Consejero de Hacienda y Finanzas y de la Consejera de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca el Consejo de Gobierno ha aprobado en el presupuesto de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2025 dicha habilitación de créditos. Los fondos se destinarán a la financiación de actuaciones a realizar por el Organismo Pagador de la Comunidad Autónoma del País Vasco.